



TURISMOARI BURUZKO TERMINOEN GLOSARIOA

EDUKIEN AURKIBIDEA

Edukia

Ostatu nagusia.....	1
Gurutzaldia:	3
Destinoa:.....	3
Destino Nagusia:	3
Bidaiaren iraupena:.....	3
Bidaiaren etapak:.....	1
Txangolaria:	4
Bidaiaren gastua:.....	1
Norbera bizi den herrialdea:	4
Turista.....	4
Sartzeko bidea.....	4
Bidaia.....	1
Bisitaria.....	3

Bidaia: Bidaiarien jarduera izendatzeko terminoa, hau da, pertsona batek bere ohiko bizilekutik kanpo dagoen leku batera egindako joan-etorri oro, irteten den unetik itzultzen denera arte.

Bidaiaren etapak: Gutxienez gau bat zein destinotan egiten den, destino horietako bakoitza bidaiaren etapa bat izango da.

Bidaiaren gastua: Helburua da bidaiaren gastu indibiduala jasotzea, edonork edonon ordaindu duela ere. Gastua galdetzen da honako partida hauetarako eta, batuketa ginez, bidaiaren gastu osoa ateratzen da:

- Pakete turistikoan egindako gastua
- Ostatutan egindako gastua

- Garraiotan egindako gastua
- Beste gastu batzuk

Bisitariak zuzenean ordaindutako kontsumo-ondasun eta -zerbitzuen diru-gastuez gain, turismo-gastuaren barnean honako hauek sartzen dira bereziki:

- Enplegatzaileak negozio-bidaiak egiten dituzten langileei zuzenean ordaindutako kontsumo-ondasun eta -zerbitzuen diru-gastuak.
- Bisitariak ordaindu dituen eta hirugarrenek itzuli dituzten diru-gastuak. Enplegatzaileak (enpresak, administrazio publikoak eta etxeei zerbitzua ematen dieten irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuak), beste etxe batzuek edo gizarte segurantzaren araubideak itzuli ahal dituzte gastu horiek.
- Emandako zerbitzu indibidualengatik bisitariak egindako diruzko ordainketak eta administrazio publikoek eta etxeei hezkuntzaren, osasunaren, museoen, arte eszenikoen eta abarren arloan zerbitzua ematen dieten irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuek emandako diru-laguntzak.
- Funtsean enplegatzaileek finantzaturako turismo-bidaietan langileei eta euren familiei emandako zerbitzuengatik ordainketak; halako zerbitzuak dira garraioa, ostalua, enplegatzaileen opor-egoitzetan egindako egonaldiak edo diruz lagundutako beste zerbitzu batzuk.
- Bisitariak kirol- edo kultura-ekitaldietara joateko egindako ordainketa gehigarriak. Ekoizleek (enpresak, administrazio publikoak eta etxeei zerbitzua ematen dieten irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuak) gonbidatzen dituzte bisitariak, eta ekoizleek eurek ordaintzen dituzte, funtsean, ekitaldiok.

Turismo-gastuaren kontzeptutik kanpo geratzen da partida jakin batzuen eskuraketa, adibidez bisitariari on egiten dieten gizarte-transferentziak –gauzatan egindakoak–, bisitarien jabetzako opor-etxebizitzetako ostatu-zerbitzuen egozpena, eta zeharka neurtutako finantza-bitartekaritzako zerbitzuak.

Ez dira sartzen bisitariak egin ahalko lituzketen ordainketa-mota guztiak. Kontsumo-ondasun eta -zerbitzuen eskuraketari ez dagozkion ordainketa guztiak bazter geratzen dira; zehazki, honako hauek:

- Bisitariak eskuratutako produktuaren erosketa-prezioaren barruan sartzen ez diren tasa eta zergen ordainketa.
- Mota guztietako interesen ordainketa, barnean direla bidaietan egindako gastuen nahiz bidaietarako egindako gastuen gaineko interesak.
- Finantza-aktiboen eta finantzakoak ez diren aktiboen eskuraketa, barnean direla lurzoruak eta ondasun higiezinak, baina bazter utzita objektu baliotsuak.
- Ondasunak eskuratzea birsaltzeko asmoz, dela hirugarrenen izenean, dela norbere kontura.
- Eskudirutan egindako transferentzia guztiak, esaterako ongintzako erakundeei

edo beste pertsona batzuei (bereziki familiari eta senideei) egindako dohaintzak, halakoak ez baitira kontsumo-ondasun edo -zerbitzuen eskuraketak.

Etxebizitzen eta ondasun higiezinaren erosketa nahiz erosketa horretatik eratortzen diren konponketekin eta hobekuntza garrantzitsuekin zerikusia duten gastu guztiak kapital-ondasunerako gastutzat jotzen dira, nahiz eta halakoak etxeek beraiek erosi; horrenbestez, horiek ere bazter geratzen dira.

Opor-etxebizitzekin zerikusia duten gastu arruntak, esate baterako, jabe batek ostatu-zerbitzuen ekoizle gisa egiten dituen horiek ere, turismo-gastutik bazter utzi beharko lirateke.

Halaber, bidaiaren egin baino lehen emandako zerbitzu guztiak, argi eta garbi bidaiarekin zerikusia dutenak (adibidez, txertoak, pasaporte-zerbitzuak, kontrol medikoa, bidai-agentzien zerbitzuak eta abar), turismo-gastuaren barnean sartzen dira. Bidaiaren egin baino lehen eskuratu diren kontsumo-ondasun guztiak, bidaiak irauten duen bitartean erabili beharrekoak (jantzi espezifikoak, sendagaiak eta abar) edo opari gisa ekarritakoak, era berean kategoria honetan sartu beharko lirateke.

Turismo-gastua eskuraketa-preziotan baloratu behar da, hau da, erosketaren unean erosleak produktuengatik benetan ordaintzen duen prezioaren arabera.

Bidaiaren iraupena: Igarotako gau kopurua.

Bisitaria: Bere ohiko ingurunekoa ez den beste destino batera urtebete baino gutxiagoan bidaiaren egin duen pertsona, helburu nagusia edozein dela ere (aisialdia, negozioak edo beste arrazoi pertsonal bat), salbu eta bisitatutako herrialde edo lekuan egoitza duen erakunde batek enplegatu duen bidaiaria.

Destinoa: Igarotako gauak eta egindako gastuak egozteko, destinoan bertan egiten diren etapetakoak soilik hartuko dira kontuan; gure kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkionak.

Destino Nagusia: Bidaiaren antolatzean bisitatu beharreko destinoen artean erabakigarria izan zena da destino nagusia. Bidaiaren baten destino nagusia erraz identifikatu ezin bada, gau kopururik handiena zeinetan igaro den eta hori izango da destino nagusia. Hainbat destinetan gau kopuru berdina igaro bada, orduan gasturik handiena zeinetan egin den eta hori izango da destino nagusia. Etapetan igarotako gauak eta egindako gastua destino horri egotziko zaizkio.

Gurutzaldia: Opor edo turismo asmoz egindako bidaiaren, bidaiariaren itsasontzi batean munduko edozein tokitara egiten dena, tarteko hainbat destinetan eskala eginda. Bidaiariari hotel baten berezko zerbitzu guztiak ematen zaizkie: ostalua, mantenua, zerbitzu medikoa, entretenimenduko jarduerak...

Ostatu nagusia: Bidaiaren gau kopururik handiena igarotzen den ostalua. Bi ostatu mota diferentetan gau kopuru berdina igaro bada, destino nagusian egindako egonaldian zein ostalutuan egon den, hori joko da nagusizat. Azken buruan, nagusizat

joko da gasturik handiena ekarri duen ostatua.

Bi ostatu-multzo nagusi bereizten dira, diruzko transakziorik egon den ala ez kontuan hartuta: merkatukoak (ordaindu beharreko ostatua) edo merkatukoak ez direnak (ordaindu behar ez den ostatua).

Norbera bizi den herrialdea: Elkarrizketa egiterakoan ohiko bizileku duten herrialdea. Ohiko bizilekua da, pertsona batek normalean eguneroko atsedenaldirik igarotzen dituen lekua; azken hamabi hilabeteetako epealdia hartu behar da kontuan, bazter utzita aldi baterako absentziak, aisialdiko bidaiengatik, oporregatik, senide eta lagunei egindako bisitengatik, negozioengatik, tratamendu medikoengatik edo erlijio-erromesaldiengatik gertatu direnak.

Sartzeko bidea: Norbera herrialdera zein modutan sartzen den. Errepidea, aireportua, portuak eta trenbidea.

Turista: Bisitari bat (barnekoa, hartzailea edo igorlea) turista gisa sailkatzen da bere bidaiari gau bat igarotzen badu.

Txangolaria: Bisitari bat (barnekoa, hartzailea edo igorlea) turista gisa sailkatzen da bere bidaiari gaurik igaro ez badu.